

OTSAGABIKO UDALAK BI MILA
ETA HOGEITA SEIKO
MAIATZAREN HAMABOSTEAN
EGINDAKO OSOKO BILKURAREN
AKTA

Otsagabian, udaletxeko bilkura-aretoan, 2026ko maiatzaren 15eko 9:00etan, Clara Catalina Goyeneche Azcoiti, Jose María Compains Rolan, Irene Lacasia Iriarte eta Cristina Ochoa Rolan zinegotziak bildu dira, Carlos Gayarre Imizcoz Alkate-udalburu dela, eta Jose Javier Garate bitarteko idazkariak lagunduta, ohiko Osoko Bilkura egiteko, aldeztu aurretik horretarako deialdia egin baita erregelamendu bidez.

Ez dago Mikel Aoiz Iriarte zinegotzia, ezin etorria adierazi duena.

Bilkura honetarako deialdia egin da beharrezkoa delako deialdiko gaitzerrendan daudenak eztabaidatzea eta, hala badagokio, onestea.

Alkate-udalburuak bilkura hasi du, eta honako erabaki hauek hartu dira:

LEHENENGOA: AURREKO OSOKO BILKURAREN AKTA ONESTEA

2026ko apirilaren 27ko Osoko Bilkuraren akta irakurri da, deialdiarekin batera banatu dena.

Ochoa zinegotziak ohar hauek egin ditu akta horren idazketari buruz:

* "Osoko Bilkurako gaitzerrendako lehenengo puntuan, "Aurreko osoko bilkuraren akta onestea", akats bat dago, honako hau agertzen baita: "1. 2026ko urtarrilaren 19an egindako osoko bilkuraren akta

ACTA DE LA SESIÓN CELEBRADA
POR EL AYUNTAMIENTO DE
OCHAGAVÍA/OTSAGABIA EL DÍA
QUINCE DE MAYO DE DOS MIL
VEINTISÉIS

En Ochagavía/Otsagabia, en la Sala de Sesiones de la Casa Consistorial, siendo las nueve horas del día quince de mayo de dos mil veintiséis se reunieron los Concejales Sres/as. **D^a Clara Catalina Goyeneche Azcoiti, D. José María Compains Rolán, D^a. Irene Lacasia Iriarte y D^a Cristina Ochoa Rolán** bajo la presidencia del Sr. Alcalde-Presidente **D. CARLOS GAYARRE IMIZKOZ** y asistidos por el Secretario Interino del Ayuntamiento D. José Javier Garate Garate a fin de celebrar Sesión Extraordinaria, previa convocatoria cursada al efecto en forma reglamentaria.

No se encuentra presente el Sr. Concejál D. Mikel Aoiz Iriarte que ha excusado su ausencia.

La presente sesión se convoca por la necesidad de debatir y, en su caso, aprobar los temas objeto de la sesión e incluidos en el orden del día de la convocatoria.

Abierta la Sesión por el Sr. Alcalde-Presidente, en ella se adoptaron los siguientes acuerdos:

PRIMERO. APROBACIÓN DEL ACTA DE LA SESIÓN ANTERIOR.

Se da cuenta del acta de la Sesión celebrada en fecha 27 de abril de 2026 que ha sido repartida con la convocatoria.

La Concejala Sra. Ochoa realiza las siguientes consideraciones en relación con la redacción de dicha acta:

* "En el punto primero del orden del día de la citada sesión relativo a la "Aprobación del acta de la sesión anterior" existe un error material en su redacción ya que figura lo siguiente: "1. Aprobar el acta de la sesión

oneste... ". Baina onetsi behar zen akta otsailaren 26an egindako osoko bilkurakoa zen. Beraz, idazketa zuzena hau da: "1. 2026ko otsailaren 26an egindako osoko bilkuraren akta oneste...".

* "Osoko Bilkurako gai-zerrendako laugarren puntuan, "Anduñ udal-taldearen idazkiak", Anduñ udal-taldeak osoko bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko aurkeztutako idazkiak jasotzen dira, eta aktan hitzez hitz idatzita agertzen dira hiru idazkiak, baina letra-mota desberdinarekin eta letra-tamaina txikiagoarekin, horiek irakurtzea zailtzen duena. Hori dela eta, aldatzeko eskatu du, aktan gai-zerrendako gainerako puntuen letra-tipo eta letra-tamaina berarekin idatz daitezen".

* "Osoko Bilkurako gai-zerrendako zazpigarren puntuan, "Hiriguneko Mugikortasunari buruzko Ordenantza", akats bat dago; izan ere, "Anduñ udal-taldeak aurkeztutako alegazio-idazkia bi aldiz idatzita dago. Beraz, bikoiztasun hori zuzentzeko eskatu du".

* "Osoko Bilkurako gai-zerrendako bederatzigarren puntuan, "Lurrak trukatzeko", trukearen xedearen deskribapenean agertzen da Otsagabiko Udala udal-katastroko 2. poligonoko 613. partzelan kokatutako herri-lurren finka baten titularra dela, eta S.C.A Méndez-San José katastro-erreferentzia bera duen finka baten titularra dela. Hori argitzeko eskatu du."

Bitarteko idazkariak, espedientean dauden datuak egiaztatu ondoren, adierazi du akats bat dagoela S.C.A Méndez-San José-ren finkaren katastro-

celebrada en fecha 19 de enero de 2026..." cuando el acta para su aprobación era la correspondiente a la sesión celebrada en fecha 26 de febrero por lo que la redacción correcta es la siguiente: "1º. Aprobar el acta de la sesión celebrada en fecha 26 de febrero de 2026..."

* "En el punto cuarto del orden del día de la citada sesión relativo a "Escritos Anduñ" en el que constan los escritos presentados por el grupo municipal "Anduñ" para su debate y votación en el pleno municipal, figuran transcritos de forma literal en el acta los tres escritos presentados por dicho grupo pero con un tipo de letra diferente y un tamaño menor que dificulta su lectura, por lo que solicita su modificación a fin que figuren redactados en la acta con el mismo tipo de letra que el resto de puntos del orden del día y con un mayor tamaño."

* "En el punto séptimo del orden del día de la citada sesión relativo a la "Ordenanza de Movilidad en el núcleo urbano" existe un error material ya que figura transcrito de forma duplicada el escrito de alegaciones presentado por el grupo municipal "Anduñ" por lo que solicita su corrección a fin de evitar dicha duplicidad."

* "En el punto noveno del orden del día de la citada sesión relativo a la "Permuta de terrenos" en la descripción del objeto de la permuta figura que el Ayuntamiento de Ochagavía / Otsagabia es titular de una finca de terreno comunal encuadrada en la parcela 613, polígono 2 del catastro municipal y la "S.C.A Méndez, San José" figura como titular de una finca con la misma referencia catastral, por lo que solicita aclaración."

El Sr. Secretario interino, previa comprobación de los datos existentes en el expediente, hace constar la existencia de un error material en la redacción del acta relativo a la referencia catastral de la finca cuya titularidad corresponde a "S.C.A Méndez, San José", ya que no es la parcela

erreferentzian, udal-katastroko 1. poligonoko 344. partzela baita.

Alkate-udalburuak adierazi du gaiaren eztabaidan eta bozketan abstenituko dela, osoko bilkura horretan ezin izan zuelako parte hartu.

Gaia eztabaidatu ondoren, bozketa egin da, eta emaitza hau izan da: Compains, Goyeneche, Lacasia eta Ochoa zinegotziek alde bozkatu dute, eta Alkate-udalburua abstenitu da, lehen aipatutako arrazoiengatik.

Horrenbestez, GEHIENGOZ erabaki da:

1. Apirilaren 27an egindako Osoko Bilkuraren akta onestea, aurretik Ochoa zinegotziak proposatutako zuzenketa guztiak eginda.

BIGARRENA: ALKATEAREN EBAZPENAK

Aurreko Osoko Bilkuratik hona Alkate-udalburuak ebatzitakoen berri eman da, hori guztia Toki Korporazioen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduari buruzko azaroaren 28ko 2568/86 Errege Dekretuaren 42. artikuluekin bat.

Honako hauek dira:

- 35/2026 Alkatearen Ebazpena, maiatzaren 5koa, Jacar Logística SLren aurka hirigintzako zehapen-prozedura hasten duena, eranskin itxi bat lizentziarik gabe egiteagatik.

HIRUGARRENA. ZARAITSUKO ZAHAR-ETXEA: MAILEGU-HITZARMENA. AURREKARIEN AZALPENA.

613, polígono 2 del catastro municipal sino la parcela 344, polígono 1 del citado catastro.

El Sr. Alcalde-Presidente manifiesta su abstención en el debate y votación del asunto ya que no pudo asistir a la celebración de dicha sesión.

Debatido el tema se procedió a la votación que arrojó el resultado de cuatro votos a favor de los Concejales Sres./as. Compains, Goyeneche, Lacasia y Ochoa y una abstención del Sr. Alcalde-Presidente por el motivo antes citado, por lo que se aprueba por MAYORÍA.

1. Aprobar el acta de la sesión anterior celebrada en fecha 27 de abril del presente año con todas las correcciones planteadas anteriormente por la Concejala Sra. Ochoa.

SEGUNDO. RESOLUCIONES DE ALCALDIA.

Se da cuenta de las Resoluciones de Alcaldía que han sido dictadas por el Sr. Alcalde-Presidente desde la última Sesión celebrada por el Pleno de este Ayuntamiento; todo ello a tenor de lo establecido en el art. 42 del R.D. 2568/86, de 28 de noviembre, de Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Corporaciones Locales, y que son las siguientes:

- RESOLUCION DE ALCALDIA nº 35/2026, de 5 de mayo, por la que se inicia procedimiento sancionador urbanístico por la realización de obras sin licencia consistentes en la sustitución de porche por anexo cerrado, contra “JACAR LOGÍSTICA SL”

TERCERO. RESIDENCIA ANCIANOS VALLE DE SALAZAR: CONCERTACIÓN PRÉSTAMO. EXPOSITIVO DE ANTECEDENTES.

El “Patronato Residencia de Ancianos Valle de Salazar de Otsagabia” es un Organismo Autónomo dependiente del

Zaraitzuko zahar-etxearen Patronatua Otsagabiko Udalaren mendeko erakunde autonomoa da, izaera juridiko propioa duena.

Bere finantza-beharrizanei erantzuteko, diruzaintzako defizita estaltzeko eta eraikinaren ekipamenduan inbertsioak egiteko, mailegu bat hitzartuta dauka SODENA (Sociedad de Desarrollo de Navarra S.L.) sozietatearekin. Mailegu hori formalizatu gabe dago oraindik. Hona hemen maileguaren datu nagusiak:

- Zenbatekoa: 225.000 euro.
- Irekiera-komisioa: zenbatekoaren % 0,25, hau da, 562,50 euro.
- Iraunaldia: hamar urte.
- Interes-tasa: Euribor + 2 puntu, urtero berrikus daitekeena. Lehenengo urtean 2026ko apirileko batez besteko Euriborra erabiliko da, hau da, % 2,747.

Idazkariak epe luzerako maileguak ituntzeari buruz legeriak xedatzen duena azaldu du.

Gaia eztabaidatu ondoren, bozketa egin da, eta emaitza hau izan da: Compains, Aoiz, Goyeneche eta Ochoa zinegotziek eta Alkate-udalburuak alde bozkatu dute, eta Lacasia zinegotzia abstenitu da.

Horrenbestez, GEHIENGOZ erabaki da:

1. Zaraitzuko zahar-etxearen Patronatuari baimena ematea lehen aipatutako mailegua SODENA sozietatearekin hitzartzeko, eta eskumena ematea horretarako beharrezkoak diren agiriak sinatzeko, dagozkion organoen bitartez, bai eta maileguaren inguruabarren bat zehaztu, zuzendu edo aldatzeko ere, beharrezkoa izanez gero.

Ayuntamiento de Otsagabia, dotado de personalidad jurídica propia.

Para atender a sus necesidades financieras, con objeto de cubrir su déficit de tesorería y realizar inversiones necesarias en el equipamiento del edificio de la Residencia, tiene convenido un préstamo con SODENA (SOCIEDAD DE DESARROLLO DE NAVARRA S.L.), con domicilio en Avda. de Carlos III-nº 36-1º derecha, de Pamplona, préstamo que aún se halla pendiente de formalización a día de hoy, y cuyos datos principales son los siguientes:

- Importe de 225.000 euros.
- Comisión de apertura de 0,25 % del importe, o sea, 562,50 euros.
- Duración de diez años.
- Tipo de interés EURIBOR + 2 puntos, revisable anualmente. Durante el primer año se utilizará el Euribor medio del mes de abril de 2026, es decir, el 2,747 %.

El Sr. Secretario informa sobre lo dispuesto en la legislación para la concertación de préstamos a largo plazo.

El Ayuntamiento de Ochagavía/Otsagabia, con objeto de lograr los fines ya indicados a los que se va a dedicar el préstamo y debatido el tema se procedió a la votación que arrojó el resultado de cuatro votos a favor de los Concejales Sres./Sras. Compains, Aoiz, Goyeneche, Ochoa y del Sr. Alcalde-Presidente y una abstención de la Concejala Sra. Lacasia, por lo que acuerda por MAYORÍA el siguiente:

1. Autorizar al Patronato Residencia de Ancianos Valle de Salazar de Ochagavía/Otsagabia, la concertación con la Sociedad SODENA del préstamo al que se ha hecho referencia en el expositivo de antecedentes, facultándole para firmar y suscribir los documentos necesarios a tal efecto, a través de sus órganos correspondientes, así como a matizar, corregir o modificar alguna de las

Lacasia zinegotziak bere botoa justifikatu du, "mailegua hitzartzeko, kontabilitateari eta legeari buruzko informazioa falta dela uste duelako".

**LAUGARRENA. TOKIKO
AZPIEGITUREN PLANEKO
OBRAK: LABARIA ETA IRIGOIEN
AUZOETAKO SAREAK
BERRITZEA ETA ZOLADURA
JARTZEA.**

Jakinarazi da Otsagabiko Udalak, aurtengo urtarrilaren 19an egindako osoko bilkuran, "Labaria eta Irigoien kaleetako sareak berritzea eta zoladura jartzea" izeneko obrak onestea erabaki zuela. Obra horiek egiteko aurrekontua 504.468,24 eurokoa da (BEZik gabe), CIMA Ingenieros enpresak egindako proiektu teknikoaren arabera. Era berean, honako hauek onetsi ziren: baldintza ekonomiko-administratiboen agiria, irizpide kualitatibo eta sozialekin, obren esleipena prozedura irekiaren bidez gauzatzea, eta gastua 2026ko ekitaldiko aurrekontuaren kargura izatea.

Obrak finantzatzeko, Tokiko Inbertsioen Planak (TEP) 413.715,11 euro emanen ditu: 147.776,34 euro sareak berritzeko, eta 265.938,77 euro zoladura jartzeko.

Iragarkia Kontratazioaren Atarian eta Udalaren iragarki-oholean argitaratu zen. Proposamenak aurkezteko epea amaitu ondoren, ez zen bat ere aurkeztu; beraz, prozedura hutsik geratu zen, lizitatzailerik ez egoteagatik.

Teknikariek hasierako proiektua aldatu eta konponbiderik egokienak planteatu dituzte, obrak berriro lizitatu ahal izateko; hori guztia Otsagabiko

circunstancias del préstamo si fuera necesario.

La Concejala Sra. Lacasia justifica su voto "al considerar que falta información contable-legal para la concertación del préstamo".

**CUARTO. OBRAS PLAN DE
INFRAESTRUCTURAS LOCALES
RENOVACIÓN REDES Y
PAVIMENTACIÓN BARRIOS
LABARÍA E IRIGOYEN**

Se informa que el Ayuntamiento de Ochagavía/Otsagabia en sesión de fecha 19 de enero del presente año acordó aprobar la realización de las obras denominadas "Renovación de redes y pavimentación de las calles Labaria e Irigoien" siendo el presupuesto de ejecución de 504.468,24 euros (IVA excluido); de conformidad con el proyecto técnico elaborado por "CIMA Ingenieros". Asimismo, se aprobó el pliego de condiciones económico-administrativas que rige la adjudicación de las obras que se sustanció mediante procedimiento abierto con criterios cualitativos y sociales y el gasto correspondiente con cargo al presupuesto del ejercicio 2026.

Para la financiación de las obras el Plan de Inversiones Locales (PIL) aporta la cantidad de 413.715,11 euros, que corresponden 147.776,34 euros a las obras de renovación de redes y 265.938,77 euros a las obras de pavimentación.

Transcurrido el plazo de presentación de proposiciones, previa publicación del correspondiente anuncio en el Portal de Contratación y en el tablón municipal no fue presentada ninguna, por lo que el procedimiento quedó desierto por falta de licitadores.

De conformidad con las gestiones realizadas, por parte de los técnicos redactores ha sido modificado del proyecto inicial y se han planteado las soluciones más

Udalak aurtengo apirilaren 17ko osoko bilkuran erabakitakoarekin bat.

Zenbait partida doitu dira, baina sareak eta zoladura berritzeko obren aurrekontu osoa ez da aldatu.

Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legean xedatutakoarekin bat, AHO BATEZ erabaki da:

1. "Labaria eta Irigoien kaleetako sareak berritzea eta zoladura jartzea" izeneko obrak egitea onestea. Aurrekontua 504.468,24 eurokoa da (BEZik gabe), "CIMA Ingenieros" enpresak egindako proiektu teknikoaren arabera.

2. Obren esleipena arautuko duen baldintza ekonomiko-administratiboen agiria onestea. Esleipena prozedura irekiaren bidez gauzatuko da, irizpide kualitatibo eta sozialekin.

3. Gastua onestea 2026ko ekitaldiko aurrekontuaren "1532-6330001" aurrekontu-aplikazioaren kargura.

4. Iragarkia Kontratazioaren Atarian argitaratzea eta Nafarroako Lizitazio Elektronikorako Plataformaren (PLENA) bidez izapidetzea.

**BOSGARRENA. BASO-
APROBETXAMENDUA: OIHAN-
ENKANTEAREN BEHIN BETIKO
ESLEIPENA**

Jakinarazi da Otsagabiko Udalak, aurtengo apirilaren 27an egindako osoko bilkuran hartutako erabakiaren bidez, baso-aprobetxamendu hau behin-behinean esleitu ziola Biosef Norte SL enpresari, hogeita hamahiru mila

convenientes a fin de poder licitar nuevamente las obras; todo ello a tenor de lo dispuesto por el Ayuntamiento de Ochagavía/Otsagabia en sesión de fecha 17 de abril del presente año.

El proyecto presentado previo ajuste de las diversas partidas mantiene sin variación final el presupuesto global para la realización de las obras de renovación de redes y pavimentación.

De conformidad con lo dispuesto en la Ley Foral 2/2018, de 13 de abril, de Contratos Públicos (LFCP), se acuerda por UNANIMIDAD:

1. Aprobar la realización de las obras denominadas "Renovación de redes y pavimentación de las calles Labaría e Irigoyen" siendo el presupuesto de ejecución de 504.468,24 euros (IVA excluido); de conformidad con el proyecto técnico elaborado por "CIMA Ingenieros".

2. Aprobar el pliego de condiciones económico-administrativas que regirá la adjudicación de las obras que se sustanciará mediante procedimiento abierto con criterios cualitativos y sociales.

3º. Aprobar el gasto correspondiente con cargo a la aplicación presupuestaria "1532-6330001" del presupuesto para el ejercicio 2026.

4º, Publicar el correspondiente anuncio en el Portal de Contratación y su tramitación mediante la Plataforma de Licitación Electrónica de Navarra (PLENA).

**QUINTO.APROVECHAMIENTO
FORESTAL: ADJUDICACION
DEFINITIVA SUBASTA.**

Se informa que Ayuntamiento de Ochagavía/Otsagabia, mediante acuerdo adoptado en sesión de fecha 27 de abril del presente año adjudicó provisionalmente a la empresa "BIOSEF NORTE S.L." en el precio

hirurehun eta hirurogeita hamasei euroan (33.376,00 €), BEZik gabe:

de TREINTA Y TRES MIL TRESCIENTOS SETENTA Y SEIS EUROS(#33.376,00#C) IVA excluido, el siguiente aprovechamiento forestal:

Lotea Lote	Alderdia Paraje	Unada Rodal	Azalera Superficie	Espeziea Especie	Zuhaitz kp Nº árboles	Kubikazioa Cubicación (m3/estéreos)
Bakarra Unico	Ituzkia	12e	10,20 ha.	Douglas izeia Abeto Douglas	1.802	1.390 / 2.138

Sexteoaren hobekuntza egiteko ezarritako epea igaro ondoren, ez da halakorik izan.

Habiendo transcurrido el plazo establecido para formular la mejora de sexteo no se ha producido.

Behin-behineko esleipendunak behin betiko fidantza eratu du eta kontratua egiteko agiriak aurkeztu ditu, esleipena arautzen duen baldintzen agiriko X. klausularekin bat.

Visto que por parte del adjudicatario provisional se ha constituido la fianza definitiva y ha presentado la documentación establecida para contratar; todo ello de conformidad con la cláusula X del Pliego de Condiciones que rige la adjudicación.

AHO BATEZ erabaki da:

Se acuerda por UNANIMIDAD:

1. Baso-aprobetxamendua behin betiko esleitzea Biosef Norte SL enpresari, hogeita hamahiru mila hirurehun eta hirurogeita hamasei euroan (33.376 €), BEZik gabe.

1º. Adjudicar definitivamente el aprovechamiento forestal antes citado a la empresa “BIOSEF NORTE S.L” en el precio de TREINTA Y TRES MIL TRESCIENTOS SETENTA Y SEIS EUROS (#33.376,00#€) IVA excluido, todo ello de conformidad con el pliego de condiciones administrativas, técnicas y oferta presentada por el adjudicatario.

2. Alkate-udalburuari eskumena ematea administrazio-kontratua formalizatzeko.

2º. Autorizar al Sr. Alcalde-Presidente para la formalización del contrato administrativo.

Eta gai-zerrendan gai gehiagorik ez dagoenez, 10:55ean Alkate-udalburuak bilkura amaitu du, eta akta hau egin da, eta nik, idazkaria naizen honek, egiaztatu dut.

Y no habiendo más asuntos en el orden del día, la Presidencia levantó la sesión siendo las diez horas y cincuenta y cinco minutos del día de la fecha, extendiéndose la presente acta, de lo que yo como Secretario, CERTIFICO.

Otsagabian, 2026ko maiatzaren 15ean

ALKATE-UDALBURUA
EL ALCALDE-PRESIDENTE

EL SECRETARIO INTERINO
BITARTEKO IDAZKARIA

EGINBIDEA. Honen bidez aditzera ematen da 2026ko maiatzaren 27ko Osoko Bilkuraren akta J. serieko foliotik foliora egin dela.

ALKATE-UDALBURUA
EL ALCALDE-PRESIDENTE

DILIGENCIA. Para hacer constar que el Acta de la Sesión de fecha veintisiete de abril de dos mil veintiséis, queda extendida al folio de la serie J nº al folio de la serie J nº.

EL SECRETARIO INTERINO
BITARTEKO IDAZKARIA